

 AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H	IL0145	Gazteek etxebizitza alokatzeko diru-laguntzak
---	---------------	--

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Herrian etxebizitza alokatzeko gazteentzako diru-laguntza.

NORK ESKA DEZAKE?

18 eta 35 urte arteko gazteek, herrian etxebizitza bat alokatzen badute edo etxebizitza alokairuan badute.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E007 Eskabide orri orokorra](#)

Elkarbizitza unitateko kide guztien NAN edo bizileku-txartela. Adingaberik egongo balitz, Familia Liburua aurkeztu beharko da.

Etxebizitzaren errentamendu-kontratua, diruz lagundu daitekeen epea barne egon behar delarik.

Kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen agiria.

Etxebizitzaren titularkidea izanez gero, ondokoak aurkeztu beharko dira:

Herentzia kasuetan, herentzia onartu eta zatitzeko eskritura.

Dohaintzetan, ematearen eskritura.

Parte-hartzea eskuz aldatuko balitz, esku-aldatzearen eskritura.

Azken urteko errenta aitortpena edo errenta egin beharrik ez duela dioen Bizkaiko Foru Aldundiaren egiaztagiria.

Gainera, zergapekoak ez diren prestazioak jasoko balira, prestazio horien ziurtagiria.

PFEZ aitortzeko derrigortasunik ez duenak honakoak eman beharko ditu:

Lan-bizitza agiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintzak eginda.

Inoren kontura lan egiten duten langileen kasuan: Kontzeptu guztiengatik jasotako diru-sarrera gordinak guztira urte horretan zeintzuk izan diren jasotzen duen enpresaren agiria.

Erantzukizuneko adierazpena, beste diru-laguntza batzuk (zenbatekoa adierazi) jaso diren edo beste erakunde batzuei diru-laguntza eskatu zaien adieraziz.

Erantzukizuneko adierazpena, diru-laguntzak orokorrean jasotzeko debekurik ez duela eta bereziki oinarri arautzaileetako 4 eta 5. art.etan ezarritako baldintzak betetzen dituela adieraziz. Adierazpen horretan agertu beharko da nor edo nortzuk bizi diren edo biziko diren alokairuko etxean.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Ordutegia: 7:30 - 15:00

Email bidez:

- haz@amorebieta.eus

Posta arrunta:

- Posta ziurtatua
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO

ZENBAT KOSTATZEN DA?

Ez da ezer kostatzen.

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Hilabete 1
Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 3 hilabete
Isiltasun-administratiboaren izaera: Aurkakoa

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [Gazteei etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak ematea arautuko duen ordenantza](#)
- [Amorebieta-Etxanoko udalerrian gazteei etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak emateko 2019ko deialdia](#)

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

Eskaria eta agiriak jaso eta egiaztatu

Erregistratu eta interesdunari kopia bat eman

NORK ONARTU BEHAR DU?

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Gizarte ekintza - Gizarte Zerbitzuak

OHARRAK